KALARITZ

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2020ko otsaila, 202. zenb.



Oihane Fernandez Lasarte

Pentsamendu kritikoa landu beharra dago

Martxoak 8:
Oroitu nahi ditugu


Gatza eta piperra

Pestia:
lehen ere baziran gaitz bildurgarrixak

Epaile eta
Jauja eskubaloi taldeko jokalari

Ziriako Andonegi mikroipuin lehiaketa

Ni, zu, gu proiektua Institutuan



martxoak 8

emakumeen nazioarteko eguna

Mutrikuko Udala

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai 943 19 50 26
..... 626 61 13 92
Lon Apraiz 943 60 32 50
..... 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) .. 943 74 12 77
Ana Mandiola (Eibar) 943 82 05 33

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
ANTON taxia 666 22 19 99
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 902 54 32 10
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87
Santa Catalina eleiza 943 60 32 00

HILERRIA

Duela gutxi, Erromako artxibo batean nengoela, italiar ikerlari bat ezagutu nuen. Ikerlariak nongoa nintzen galdetu zidan: “mutrikuarra”, erantzun nion nik. Ba ikerlari hark, Mutriku ezagutzen du!

Estatu mailako arrantzale eta itsas merkatarien inguruko ikerketak egin zituela esan zidan, eta euskaldunak eta mutrikuarrak, askotan agertzen omen zitzaizkion. Erreferente izan ziren gure portuak, mendeetan zehar. Duela gutxira arte ere, hala izaten jarraitu zuen. Adibide bat emateko: 1970eko hamarkadan, Euskal Herriko portuetan 1000 itsasontzitik gora egon zitezkeela kalkulatzen da. 2018an, gure portuetan deskargatzen zuen flota, 167 ontzik osatzen zuten.

Mutrikun ere, antzeko zerbait gertatu da. Nik neuk gogoan dut oraindik, portua arrantza ontziz beteta ikustea. Handiak eta txikiak zenbatuta, 20 ontzitik gora bildu omen zituen gure portuak. Gaur, arrantza ontzi bakarra geratzen da. Bi ontzi, propaganda egin nahi dutenentzat. Lau, galiziarrak ere zenbatzen dituztenentzat. Eta arrantza ontzi tradizionalak, egur usaineko haiek, kantauriar kostaldea erreferente egin zutenak, desagertu egin dira. Euren ordez, plastikozko ontzi artifizialak bakarrik geratzen dira, auskalo norenak, eta auskalo zertarako.

Eta izurdeek badakite hori. Hiru izurde agertu ziren Mutrikun, portuan bueltaka, batera eta bestera. Hirutik bakarra geratu zen gero. Idatzi hau kaleratzen denean, agian, oraindik izurde bakarti hark bueltaka jarraituko du, kofradia zaharraren eraikinaren aurrean. Hala bada, plastikozko ontzien mundua defendatzen duten horiek pozik egongo dira, izurdeari argazkiak ateratzera etorri direnekin: “ni ere egon naiz Mutrikun”. Herrira etorri, trago bat hartu, zeozer jan eta Instagramera igo irudiak: “Like. Like”. Baina atzean daukaten arku dotorez apaindutako kofradia zaharraren eraikinari begiratu ere ez diote egingo.

“Mutrikuar batek esan dit izurdea gaixorik zegoela eta hiltzera etorri zela”. Mutrikuarrak esan badizu, jakingo du bai, horren berri. Mutriku, herri arrantzalea (izan) delako. Erreferentea. Mutrikuk itsasoari lotutako historia dauka. Bertakoek, baleak arrantzatzen zituzten. Ia 300 arrantzale ere zenbatu ziren garai batean, portutik ontzira salto egiten.

Izurdeak ez dira inozoak. Izurdeek badakite, hiltzera, nora etorri behar duten.



www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

						ostr. lanegun
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	Ig 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Lr 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	Lr 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	Lr 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

MUTRIKUARROK ZORIONEKO GAUDE

Mutrikuren kokapen geografikoak bide nagusietatik bazter bizitzea eragin izan digu eta ondo dakigu, horratio, mugikortasunean zeintzuk diren egunero jasan behar izaten ditugun eragozpenak . Horri aurre egin nahian, ordea, urteetan Mutrikuko udalak arazoari irtenbide egokia aurkitzeko asmotan jardun du lanean. Aurkeztutako proiektua, aldiz, Aldundiko gobernu ezberdinek, EAJ-PNVrenak lehenengo eta EHBilduenak ondoren, baztertu egin zuten ingurumenean eragingo zituen kalteak eta izango zuen koste ekonomiko handiak argudiatuta.

Egoera horren aurrean, ikusirik gaur egun Aldundiak aurrekontuaren erdia gizarte politikara zuzentzen duela, antzua iruditzen zitzaigun bazter utzitako proiektua defendatzen tematzea. Hala, aurreko legealdiaren hasieran, arazoaren erabateko konponbidea ekarriko ez zuen arren, hainbat gabezia bideratzen bai lagunduko lukeen alternatibaren aldeko urratsa ematera ausartu ginen, GI-638 errepidea, itsas aldekoa, hobetzearena, alegia. Aldundia Mutrikuren egoeraren jakitun zen eta gure herriarekiko “zorra” aitortuz, Markel Olano Diputatu Nagusiak berak proiektua abian jartzeko konpromezua hartu zuen. Guk, berriz, aldeko haizeaz baliatuz, proiektuan errepidearekin batera gure itsasalde osoa zeharkatuko zuen oinezkoentzako paseoa txertatzeko eskaria luzatu genien. Argi ikusi genuen mutrikuarren aisialdirako bezala, azkenaldian ugaritzen doakigun turismoa bultzatzen lagun zezakeen tresna ezin hobea gerta zitekeela. Eta asmatu dugulakoan gaude!

Erraza izan ez den obra honek buruhauste eta eragozpen ugari jasanarazi badigu ere, amaieratik gertu, ez dugu zalantzarik urrats hau emateak merezi izan duela. Pozik gaude hemendik aurrera herritarrok hobekuntza handiak nabarituko ditugulako segurtasunean nahiz erosotasunean eta, nola ez, oinezkooi itsasoaren ikusmira paregabeaz jantzitako guneez gozatzen hasteko aukera ezin hobea eskainiko digulako.

Iruditzen zaigu mutrikuarrok, oro har, zorioneko gaudela proiektu hau gauzatzea lortu dugulako. Mutrikuko EAJ-PNVtik adierazi nahi dugu, beti bezala, gure herriaren eta herritarren bizi kalitatea eta ongizatea hobetzen joan daitezen zorroztasunez eta aurreiritzietan erori gabe etengabeko lanean jarraituko dugula.

Amaitzeko, Aldundiari eskerrak eman nahi dizkiogu mugikortasunean ditugun gabezia handien aurrean gure eskaria sentiberatasunez hartu izanagatik.

Zorionak Mutriku!!!

Mutrikuko EAJ-PNVren udal taldea

BAINA HERRI ERDIKO ARAZOAK JARRAITZEN DU

Kostako bidea laster inauguratuko da eta mutrikuarrok asko estimatzen dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen ahalegin ekonomikoa.

Duela lau urte eta erdi edo, 2015eko udal hauteskundeak eta gero, komunikabideetan indar haundiz atera zen kostako bidearen konponketarako proiektua egiteko asmoa.

Hasierako aurreproiektuan ez zen agertzen bidegorririk, baina bultzatuta, plenoetan, alegazioetan eta Batzar Nagusietan indar eginez, bidegorria proiektuan jasotzea lortu zen.

Egia esan, bide berritu honek erosotasuna dakarkigu guztioi, eta bidegorriak, oinezkoentzat zein txirrindularientzat, lasaitasun haundia. Hala ere, proiektu honek ez du Mutrikuk herriaren erdi-erdian daukan trafiko arazo larria konponduko. Turruntegitik eta Txalapartarainoko tarte horretan egunero milaka kotxe nahiz kamioi pasatzen dira Aldundiak dioenaren arabera, eta eguneroko bizitzan inguru horietan bizi edo ibiltzen direnentzat, arrisku leku bilakatu da aspaldidanik. Zenbait istripu larri ere gertatu da dagoeneko!

Honez gero badira 30 urte arazo hau bideratu edo konpondu nahian gabiltzala, eta horrek herriguneko trafikoari konponbidea emateko ahaleginak, tartean Mutriku-Sasiola, hainbat urtetan aldarrikatutakoa eta Aldundiak berak ere soluzio egokitzat jotakoa.

Konponbidearen beharra herriko alderdi nagusien kezka izan da ordutik, eta hauteskunde garaian ere beti eraman izan da gai hori agendan. Duela bi legealdi, EH Bilduk eta EAJ-PNVk udalbatzan herri barruko trafikoak sortutako arazoari irtenbidea emango liokeen soluzio baten bila abiatzeko bideak eskatu zituzten udalbatzan, eta horren haritik lortu zen Mutriku-Sasiola saihesbidearen aurreproiektu berri bat egitea, proiektu originala 82tik 19 milioi eurotara jaitsita eta ingurumena gehiago zaintzen zuena. Beharbada hori ere ez zen izango azken soluzioa izango, baina aukera berri bat erakusten zuen.

Hala ere, herri barruko problematika kontuan hartu gabe, aurreko legealdian kostako bideari heldu zitzaion lehentasunez, ordura arteko lehentasuna baztertuta, trafikoa herritik ateratzearena alegia.

Lehen esan bezala, biziki eskertzen ditugu Kostako bidean eginiko hobekuntza lanak, baina honek ez du asetzen, betetzen edo kitatzen herri honek historikoki izan duen aldarria.

Gure ustetan, trafikoa eta bereziki trafiko astuna, herri barrutik atera behar da eta herri bizigarriagoa egin. Horixe da historikoki herri honek eskatu duena.

Mutrikuko Euskal Herria Bildu

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira:
Kalaputxi, Barrenkalea 12 behea, 20830 Mutriku edo internet bidez, **kalaputxi2001@gmail.com**

Argitaratzailea **Karenka Komunikazio Elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **kalaputxi2001@gmail.com / aldizkaria@kalaputxi.eus**
Web gunea: **www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Ibon Aginaga**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

OROITU NAHI DITUGU

Urtarrilak 30eko greba bizkarrean dugula eta Martxoaren 8a ate joka dugun honetan oroitu nahi ditugu. Oroitu nahi ditugu ikasliburuetan jasota ez dauden emakume guztiak. Oroitu nahi ditugu mendeetan zehar hilak, bortxatuak, torturatuak, jazarriak eta isilaraziak izan diren emakumeak. Oroitu nahi ditugu bizitza duinaren bandera hartu eta eskubideen (bozka, abortua, dibortzioa, amatasuna, lana, hezkuntza...) defentsan aritu direnak. Oroitu nahi ditugu gure kaleen izenek jasotzen ez dituzten Mutrikuko emakume esanguratsuak. Oroitu nahi ditugu erditu gaituzten amak. Oroitu nahi ditugu bizitzaren alde herria utzi eta erbestera etorkizun bila joan direnak. Oroitu nahi ditugu mediterraneoak bere ur gazitan urperatu dituztenak. Oroitu nahi ditugu gure biziak sostengatu dituzten emakume (ama, tutore, ahizpa, izeba, amona, lagun...) guztiak.



Oroimenak oroitzapenak jaso eta iragana gaurkoarekin josiz etorkizunari bidea irekitzen omen diola entzun dugu. Emakumeon oroimena banakakoa izan ohi da edo zirkulu txikian konpartitua. Liburuek jaso ez dituzten historia txiki zein handiek, esanguratsuek, bortitzek, leunek, ilunek, maitasunez beteek, gorrotoak hartutakoek... osatu dituzte.

Kafea esku artean izan dugunean, kemenaren bila aritu garenean, bidelagunak gogoratu nahi izan dugunean oroitu izan ditugu horiek guztiak gure mingain zein ezpainetan. Gure gorputzak bizipen guzti horiez zeharkaturikoak dira.

Gertutasun, zirkulu txiki horiek ezinbesteko baditugu ere bestelako espazio publikoak geure egiteko hautua egin dugu. Orain arte banakakoak izan diren oroimen mugatu horiek kolektibo bilakatzeko apustua egin dugu.

Gizartean gure bizipen, lorpen, borroka, identitate, kezka, esperientzia, lan, sentipen... ezberdinak ezagutarazi nahi ditugu. Helburu hori esku artean izanik emakumeok izendatuak izan nahi dugu, esaten ez den hori, izenik hartzen ez duenak, nekez izan bait lezake izaera, identitatea. Eta, beraz, gaur eguneko emakumeok erreferentzia horiek gabe hezi eta hazi bagara ere, etorkizuneko nesken patua berdina ez izateko ardura geure egin dugu.

Orain artean emakumeok badirudi etxeko su magalean baino ez garela bizi izan. Hala erakusten digute behintzat orain arteko jakintza arloen ezagutzak jaso dituzten eskuliburuek. Baina ez, gure oroimen isolatuek bestelako errealitate bat erakusten digute: emakumeok etxeko lanetan aritu gara, amak izan gara, baina borroka sozial zein politikotako lehen lerroetako kide ere izan gara, guda anitzetan arituz. Zientzialariak, antropologoak, idazleak, fabriketako langileak, zerbi-





tzariak, zaintzaileak, medikuak, poliziak, abokatuak, pentsalariak, dendariak, tabernariak, politikariak, sukaldariak... izan gara.

Oraingo Martxoaren 8an, beraz, oroitu nahi dugu. Oroitu nahi ditugu sistema heteropatriarkalak isilarazi eta bigarren planoan utzitako emakume guztiak. Oroitu nahi dugu bezela, Mutrikuko emakumeon memoria kolektiboa landuaz batera, pasa den urtean emakumeok nola hartu genituen Mutrikuko kaleak. Hori guztiagatik, bizitza erdigunean jarriz gizarte zein bizitza duinak sortzeko borondatea oroitu nahi dugu. Elkarrekin egiten dugun borroka banakoaren zein kolektiboaren bizitzak hobetzen dituela oroitu nahi dugu. Hori dela eta, oraingo martxoaren 8an ere Mutrikuko kaleak beteko ditugu emakumeok.

Bizitzak erdigunean jarriz, bizitza duinak eraiki nahi ditugulako!

Gora emakumeon borroka! Gora borroka feminista!

Emakumeak Mutrikun Abian – EMA











ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

islada FISIOTERAPIA
Pilates, Antigimnasia eta Hipopresiboetan izena emateko aukera dago
Fisioterapiako ordutegia: 8:30-13:00 eta 14:30-20:00
San Agustin 10, behea · 943603655 · islada@islada.org



MUTRIKUN EROSI ETA ON EGIN

Mutrikuko Udaleko Ekonomia garapen sailaren lan ildoen barruan herriko merkataritza txikia sustatu eta bultzatzea dago ezarrita. Horren haritik antolatu zen 2019 urte bukaeran marketin kanpaina antolatu zuen *Mutrikun Erosi eta On Egin* izenarekin. Kanpainak iraun zuen bi hilabeteak iraganda, urtarrilaren 10ean zozketa egin zen, bi bizikleta elektrikorena hain zuzen ere, eta hauxe izan zen emaitza:

- Orbea Keram bizikleta elektrikoa Francisco Javier Zafra Carriónek irabazi du, abenduaren 14an Lasuen Elezgarai Botikan egindako erosketan jasotako 42.063 zenbakiko txartelarekin.
- Orbea Katu bizikleta elektrikoa Rita Mancisidor Galdosek irabazi du, azaroaren 28an Soul arropa dendan egindako erosketan jasotako 21.205 zenbakiko txartelarekin.

Mutrikuko Udalak adierazi duenez, honelako ekimenek herriko merkataritza indartu eta eusten laguntzen dute. Beharrezkoa ikusten da herriko merkataritzari laguntzen jarraitzea, Mutriku herri bizia delako eta gerora ere honela izatea nahi dugulako.

AUSAZKO HERRITARREN PARTE HARTZEA

Foru Aldundiaren *GipuzkoaLab* egitasmoaren baitan gobernantza kooperatibo eredu berriak eta kudeaketa publikoan berrikuntza soziala bultzatzen duen ekimena da honakoa.

Ausaz, zozketa bidez, aukeratutako hogeita bost herritarrek osatutako taldeak Aztiker aholkularitzak gidatutako parte hartze prozesua burutuko du otsailean hasi eta maiatza bitartean. Gaia: Hondakinen kudeaketaren inguruko balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak egitea.

Gogoratu behar da 2014ko azaroan hondakinak biltzeko sistemen inguruan parte hartze prozesua burutu zela Mutrikuko Udalak sustaturik eta Aztikerrek berak gidatuta. Oraingo prozesuaren bitartez helburua ez da ezer aldatzea, martxan den sistemaren inguruko hausnarketa partekatua egitea eta aurrera begirakoan hobekuntzak proposatzea baino.

Aurki, ausaz, zozketaz aukeratuak izango diren hainbat mutrikuarrek eskutitza jasoko dute etxean parte hartze prozesu honetan parte hartu nahi duten eskatuz. Bere borondatea eskaintzen dutenekin osatuko da taldea, hiruzpalau saiotan elkarlanean lan egiteko.

Erakunde publikoen eta herritarren arten elkarlan eta parte-hartze kultura indartzea bilatu nahi duen prozesu honetan, ausaz hautatutako herritar taldearen metodologiak herri mailako prozesu batean izan dezakeen baliagarritauna aztertu nahi da.

Prozesu hau bezala, Udalaren asmoa da beste gai batzuetan ere herritarren partaidetza baliatzea gaien inguruan informazio trukea egiteko eta erabakiak modu partekatuagoan hartzeko. Apurka-apurka, herritarrek udalaren dinamiketan modu zuzenagoan parte hartzea bilatu nahi da. Gobernantza eredu berrien bila.

NAZARENO EGUNA

Urtarrilaren hirugarren domekan antzinako ohiturari jarraituz ospatu zen Mutrikun “Nazareno” Eguna.

Herriko bandak izan zuen protagonismoa, komentuko elizara Goiko Plazatik, ohi bezala, kalean zehar egindako ibilaldiarekin, eta, ondoren, kontzertua eskainiaz herritarrei.

Komentuko eliza mutrikuarrez bete zen meza nagusirako. Baina nabaria da aldaketa aspaldiko giro harekin konparatuz. Beldurra eta kezka hedatzen zuten predikatzaile iaioek, urteak dira desagertu zirela, eta egun bandaren kalejira alaiak beste giro batean sartzen gaitu. Zer esanik ez, elizaren aurrean jotzaileak lehenago kartzelara eramango zituen “Euskotarrak” doinuaren notak aireratzean.



Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es



EMAKUME PALISTAK

Mutrikuko Emakume Palistak taldeak aurten, estreinako, Mutrikuko Emakumezkoen Binakako I. Pala Txapelketa antolatu du.

Orain arte jardunaldi bakarreko txapelketa azkarrak antolatu izan dituzte, baina aurten txapelketa luzeago bat antolatzea erabaki dute. Txapelketa Miruaitz frontoian jokatuko da domeka arratsaldeetan, beti ere teniseko pilotarekin.

Txapelketa urtarrilaren 26an hasi zen martxan eta martxoaren 8an emango zaio bukaera. Aurreneko lau asteburuetan sailkapen ligaxka jokatuta, hortik 6 bikote zuzenean pasako dira final laurdenetara, otsailaren 23an jokatuko direnak. Kanporaketa horretan sailkatuko diren hiru bikoteak finalerdietara pasako dira eta laugarren bikotea "errepeska" moduko baten bitartez sartuko da final laurdenen egun berean. Lilatoia dela eta, final erdiak ez dira martxoaren 1ean jokatuko; otsailaren 29ra pasako dira partidu guztiak.

Final handia martxoaren 8an jokatuko da, eta hirugarren eta laugarren postuak ere egun horrexetan erabakiko dira. Hasiera-hasieratik, txapelketa martxoaren 8an amaitzea izan da asmoa, Emakumearen Nazioarteko Eguna izanik, egun hori egun seinalatua izango delako. Oraingo honetan goizez jokatuko dira partiduak eta jarraian sari banaketa, luntxa... egongo dira.

Antolatzaileek bertara gertura-tzeko deia luzatzen diete herritar guztiei eta, bide batez, palaz aritzera animatu nahi dituzte frontoian gozatzen duten guztiei.



EÑAUT BARRUETABEÑAREN BILDUMA BERRIA

080 Barcelona Fashion lehiaketan saritua izan ondoren bere bilduma berria kaleratu zuen Eñautek otsailaren 5ean Bartzelonan. EXODUS izena jarri dio bildumari. Munduaren akaberaren inguruko hausnarketa, bakoitzaren barne bidaiaren metafora.

Estetika minimalista, xehetasunetan arreta jarriz eta patroiak zainduz ehun organikoak eta teknikoak dira Eñautek erabili dituenak, betiko zuria eta beltzaz gain grisak eta urdin ilunak lekua hartu dute bilduman.

Harrera ona izan du Eñauten bildumak. Diseinatzailke mutrikuarrak 2017 urtean bere ibilbideari ekin zion eta 2018an sortu zuen Eñaut marka. Ibilbide luzea eta oparoa desio diogu.

Eñauten lanak ezagutu nahi duenak eta hark diseinatutako jantziak erosi nahi dituenak hemen du aukera: **https://enaut.co/**



BERDEL EGUNEAN ALDAKETAK

Urteroko hitzorduari helduta, hasi dira Berdel Egunaren antolaketan. Aurtengoan XXV. edizioa ospatuko da, eta urte borobil horrekin batera, aldaketa nabarmen bat izango da herriko jai esanguratsuan: dastaketa herrikoia arratsaldetik eguerdira pasatuko da.

Oraindik ere programa osatzeko badago ere, esan behar da Berdel egunaren aurreko astean zenbait ekitaldi antolatuko direla hogeita-bostgarren urteurrena modu berezian ospatu ahal izateko. Egunekoari begira, berriz, portukoei beste zenbait ekintzak jarraituko diete herriko alde zaharrean.

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak..)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku



KANDELARIREN BITXIKERIAK

Noizbehinka izaten dira kalendarioan zenbakizaleei arreta pizten dieten egunak. Horietakoa izan da aurtengoan "Kandelari" eguna, igandez ospatu den otsailaren 2a.

Hona bitxikeria: egun kapikua gertatu da, aurretik atzera edo atzetik aurrera berdin irakurtzen dena: 2020-02-02; gainera urte hasieratik 33. eguna izan da, eta urtea bukatzeko beste 333 egun falta ziren. Agian, norbaitek erantsiko lioke beste bitxikeriaren bat, Alejandriako Diofanto, aljebraren aita deituak, adina jakiteko bere hilobian jarri zuen problema matematiko baten antzekoa.



SANTA AGATA BEZPERA

Eguraldiak oztopatu zien kalean zehar kantatzea, baina nagusiak baino gutxiago ez ziren izan makilak astintzen lurra esnarazi nahian. Institutuan eta zaharren egoitzan eztarriak berotu ondoren, arratsaldeko irteera baino lehen atera ziren Goizeko Izarra ikastolaren patiora eta gogo biziz koplak kantatu Agataren omenez.

Eta ez pentsa makilak prestatzea txikikeria bat izan zenik, ondo hornituta zuten gehienek koloredun zinta eta apaingarriekin.

Etxeko lanak!



SANTA ESKEA, GAZTEENEN BERTSO ESKOLAREN ALDE

Otsailaren lehenengoan Bertso Eskolak deituta, herriko bertsozaleak goizean goiz Luardon elkartu ziren. Handik, udaletxearen atarira, Alkateari herrian koplari aritzeko baimena eskatzera eta, taldeko argazkia atera ondoren, herriko kaleetan eta auzoetan zabaldu ziren taldetan herriko giroa koplaz alaitzeko. Aurtengoan, Santa Eskean bildutako dirua Bertso Eskolan diharduen gazteen taldeari laguntzera bieratuko da.

txirritxa.com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia


OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

GATZA eta PIPERRA

Herriko hitzak eta esamoldeak asmatu edota bilatu beharko dira atal honetan. **Bai txo! euskara elkartia**k orain dela urte batzuk herriko hitzak eta esamoldeak jaso, mantendu, eta berreskuratzeko edota zabaltzeko helburuarekin egindako **Gatza eta Piperra** lehiaketan jasotako hitzak dira hemen agertuko direnak.

GURUTZEGRAMA

1. LABEZOMORROA
2. UME JAIOBERRIA
3. URETAN SORTZEN DEN HAIZE ZURRUNBILOA
4. KORRIKA
5. URETARA BURUZ BEHERA



LETRA-ZOPA

1. MOZKORRA
2. GELDIRIK EGOTEN EZ DAKIENA
3. KUKU EGIN
4. ATEA IXTEKO DARABILGUNA
5. JOLASTU

T	T	R	T	F	U	L	T
S	X	K	A	T	J	I	X
I	O	A	A	Z	K	U	I
R	N	G	T	I	S	T	N
R	L	A	P	X	U	S	K
O	E	Z	E	Z	O	S	E
X	A	N	S	E	Z	L	T
Z	K	I	R	I	K	A	A

soluzioak:

Gurutzegrama: 1. Maxamalakua 2. Hankagorrixa 3. Saltaka 4. Kirik 5. Zanga **Letra-zopa**: 1. Txatxola 2. Zazpiki 3. Kirik 4. Txinketa 5. Olgatu

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

Oihane Fernandez Lasarte

PENTSAMENDU KRITIKOA LANDU BEHARRA DAGO IKASLE AKTIBOAK ETA KRITIKOAK SUSTATUZ

Oihane Fernandez Lasarte (1979) Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko irakaslea dugu Gasteizen. Hainbat ikasketa egin ondoren, PSIKOR taldean dabil lanean. Irakaskuntza eta ikerketa uztartuz pasio handiz bizi du bere egunerokoa.

EHUko PSIKOR taldeko ikertzailea zarela jakin dugu. Nolatan?

Psikologia titulu akademikoarekin Psikodidaktika masterra egitera sartu nintzen. Bertan, nire psikologiako irakasle ohia topo egin nuen eta bere eskutik hezkuntzaren psikologia ikerketa taldean sartu nintzen, eta horrek nire bi formakuntzak, Psikologia eta Hezkuntza, uztartzeko aukera eman zidan.

Zein lan egiten du ikertzaile batek? Zertan oinarritzen zara?

Batetik, gure lana eta erantzukizuna, irakasle gisa, ikertzea eta ikerketaren emaitzak ikasleekin zein gizartearekin partekatzea da. Oraingoan, testuinguruko aldagaiak ardatz hartu eta horiek neurtzeko frogak pasatu ditugu. Ondoren, jasotako datuak aztertu eta horiekin analisi estatistiko zorrotzak egin ditugu ondoren argitaratzeko eta kongresu ezberdinetan hedatzeko. Horrez gain, esku-hartze programak diseinatzen ari gara momentu honetan: hainbat ikastetxetan aplikatu eta ikasleen eskola-doikuntza hobetzeko asmoz.


Bestetik, udaberri-uda honetan, ikerketa taldeko bi lankidek Baionako unibertsitatean egonaldia egiteko asmoa daukagu. Bertan, Ipar Euskal Herriko ikasleen artean lagina jasotzea da helburua, eta, hortik ateratzen ditugun emaitzak baliatuz irakasleekin eta ikertzaileekin lankidetzan erabiltzen ditugun tresnak euskaraz sortu eta argitaratu nahi ditugu.

Eskola errendimenduan eragina duten faktoreak ere aztertu zenituen...

Horren inguruko tesia 2018 urtean defendatu nuen. Aurretik ia 2000 ikasleren datuak jaso genituen, eta orain-dik ere ikasle gehiagoren informazioa jasotzen jarraitu dugu. Tesitik ateratako emaitzak eta ondorioak hainbat argitalpenetan argitaratu dira 2019 urtetik aurrera.

Zeintzuk dira faktore horiek? Kontatuko zeniguke pixka-txo bat?

Ikasleen eskola-doikuntza (eskola errendimenduan eta eskola inplikazioan) tesian lortutako emaitzei erreparatuz, sostengu sozialak (irakasleena, familiena eta ikaskideena)







eta aldagai psikologikoek (adimen emozionalak eta autokontzeptuak) eragina dutela ikusi da.

Lehenik, pertsona bat zaindua, baloratua eta maitatua sentitzen dela esaten dugunean sostengu sozialari buruz ari gara. Ikasleak beharra duenean laguntza izango duela eta laguntza horrekin pozik geratuko dela sentitu behar du.

Bigarrenik, adimen emozionala, emozioei arreta jartzeko, emozio ezberdinak ulertzeko eta erregulatzeko gaitasuna da.

Eta, autokontzeptua, norberak bere buruan daukan irudia: ingurunean pertsona esanguratsuekin dituen esperientzia eta harremanen bitartez eratzen dena. Autokontzeptu orokorra dago, bata akademikoa, pertsonala, soziala eta fisikoa ere.

Ikerketan, familiaren sostenguak aldagai psikologikoetan (adimen emozionalean eta autokontzeptuan) eragin handiena duela ikusi da, eta irakasleen sostenguak, berriz, eskola-aldagaietan (eskola-errendimenduan eta eskola-inplikazioan). Ikaskideek, aldiz, eragin txikiagoa dutela ikusi da.

Zer iruditzen zaizu gaur egun daukagun hezkuntza publikoa? Sortu berri diren korronteak? Konfidantzazko pedagogia, adibidez.

Batik bat, hezkuntza ume guztiek izan beharko luketen giza eskubidea dela aldarrikatu nahi dut. Hau da, justizia sozialean oinarritzen bagara, guztiok hezkuntza publikoa bermatu eta zaindu beharko genuke. Gaur egungo hezkuntzan, eredu pedagogiko ezberdinak ditugu: konfidantzaren pedagogia, metodologia aktiboak eta berritzaileak (ikasketa kooperatiboa, dialogikoa, proiektuka), hezkuntza alternatiboak... Ordea, iruditzen zait irakasleok etengabeko formakuntza behar dugula, horiek ezagutu eta aplikatu ahal izateko.

Orduan, nolakoa izan beharko luke hezkuntzak? Zer aldatu edo indartuko zenuke?

Aipatu bezala, hezkuntzak guztiz publikoa izan beharko luke eta laikoa. Gaur egungo errealitateari/gizarteari erantzuten diona; justua eta pertsona hobeak izateko balioak lantzen dituena. Aniztasunaren eta kulturartekotasunaren aberastasuna jasotzen duena. Herritarrei era kritikoan pentsatzeko aukera ematen diena. Komunikazioa lantzen duena. Emozioen garrantzia, bakoitzaren buruaren lanketa, geure buruarekin eta besteekin bizitzeko eta pertsona zoriontsuagoak izateko lan egingo duena.

Eta honakoak aldatuko eta indartuko nituzke: politikariek etengabe hezkuntza legeak aldatu beharrean, adituek, hezkuntzan lan egiten dutenek eta gertutik benetako errealitatea ezagutzen dutenek eurek egitea hezkuntza legeak, beste herrialde batzuetan egiten den bezala. Bide batez, harreman horizontalagoak eraikiko nituzke, hierarkia gabekoak. Baina horretarako pentsamendu kritikoa landu beharra dago, ikasle aktiboak eta kritikoak sustatuz, etengabeko aldaketei aurre egiteko prestatuak egongo direnak eta erabakiak hartzeko eta hobekuntza aldaketak egiteko ausardia izango dutenak.

Ikastetxeek zer nolako harremana izan beharko lukete herriko taldeekin, udalarekin, herritarrekin...?

Argi dago hezkuntza komunitate guztia inplikatu behar dela: eskolak bere ateak zabaldu eta gizarte-eragile guztiekin harremana izan behar du. Azkenean, ikasleak gizartea ezagutzeko eta bertan era inplikatuan bizi ahal izateko prestatu behar ditugu.

Zein da zure ametsa ikerlari, irakasle,... gisa?

Etengabe ikastea, pentsamendu kritikoa lantzen jarraitzea, eta hezkuntza zein gizartea aztertzeko, hobetzeko eta sendotzeko lanean jarraitzea.

Aurrerantzean zeintzuk proiektu dituzu langai?

Beste herrialdeetako unibertsitateetan egonaldiak egin nahiko nituzke, errealitate anitzak eta esperientzia berriak ezagutzeko, irakasle eta ikertzaile ezberdinekin lan egiteko eta, azken finean, ikasten jarraitzeko, eta ikasbide horietatik gurera ekarpenak egiteko.







PESTIA

Lehen ere baziran gaitz bildurgarrixak

Urte hasierarekin batera koronabirus izeneko birusaren berri izan gendun. Txina aldian agertu ziran lehelengo kasuak, 2019ko abenduan, eta aburo-aburo zabaldu zan. "Wuhango koronabirusa" izenez ere ezagutzen dan gaitz hori kontu serixua da, izan ere Munduko Osasun Erakundiak nazioarteko larrialdi egoeria deklaratu deu. Baiña ez eizue pentsau epidemixa horrek sortutako bildur hori berrixa danik, bai zera! Horren erakusgarri, Mutrikuraiño aillegatu zan gaitz bat ekarriko degu hona: pestia.

Aurtengo Koronabirus horrek gaitza harrapatutakuen %2-3 hiltzen ditxu. Ez da kopuru haundixa historixan izan ditxugun beste epidemixei erreparatu ezkero. Gogoratu besterik ez do XIV. gizaldiko peste edo izurri beltza: europarren %40 hil zitxuan. Datu bildurgarrixa, iñundik ere.

Azkar zabaltzen dan gaixo baten aurrian oso jarrera naturala da bildurra. Defentsa mekanismo bat dala esan geinke. Aurtengo epidemixa hontan birusak jota egon leikezen pertsonak berrogeialdixan (kuarentenan) eukitzen ditxue gaiñerako herritxarrak babestiarren. Baiña neurri hori ez da kontu berrixa, ez horixe!



Izurria

Pestia Mutrikun

Batuaz batez ere "izurria" esaten zako gaitz horri. Sasoi bateko mutrikuarrek ondotxo ezagutu zeuen, aspalditxik ezagutu ere. Bildur haundixa eragitxen zoan herritxarren artian oso errez nahastau edo kutsatu zeikelako.

Sasoi baten, jentiarekin batera gaixuak ere itsasotik etortzen ziran Mutrikura. Lihorretik ere etorri zeikezen, bai, baiña orduko bidiak ez ziran onak. Beraz, itsaso zabala zan autopistarik zabalena.

Kontu jakiña da gure herrixak harresixa euki zoana, baiña askotan ahaztu egitxen zaku gerretarako ez ezik peste edo gaitz arriskutsuetatik babesteko ere balixo zoala. Holakuetan, herriko atiak itxi egitxen ziran eta zaindarixak jarri, gaixotasuna ekarri zeikezenengandik gordetziarren. 1506. urteko datua: "*por amor de la pestelençia estovieron tres guardas en las puertas de la villa en 20 dias cada guarda a 9 maravedis*".

1508. urtian 2 tarja –orduko txanpona– ordaindu ziozen Mutrikuko udalak Catalina Apateguiri , "*por goardar por temor de la pestelençia a çierta gente que venia de Vayona por que non entrasen en la villa*".

Inguruko herrixetan zauan gaitzaren berri eukitziarren Udalak "informatzailliak" bialtzen zitxuan; konparaziotarako, 1508. urtian 20 marabedi eman zixuen gazte bati, "*a vn moço que se ynbio a Lequetio por saber por la pestilencia que abia en Vermeo*".

1597-1600 urtietan indarrez heldu zan Euskal Herrira izurri edo pestia, baitxa Mutrikura ere. 1597ko ilbeltzaren 21ian, artian Mutrikura aillegatu gabe zauala, Udalbatzan aztertu zeuen egoeria: "*Este día se trató y platicó cómo en la Villa de Santander y Castro y Portugalete ay peste*". Erabaki zeuen herrixan guardixa egitxia pestia zaken herrixetakuak herrira sartzen ez lagatzeko, "*se ponga goardia y no se dexe a persona alguna que benga de las dhas Villas y de otra qualquiera parte que aya sospecha*".

Gaitzari aurre egitxeko Mutrikuko harresixa eta bertako atiak konpondu zitxuen. Gogor jardun zeuen hargiñek, arotzek eta bestelako langilliek 1598.urtian: "*trabajaron en çerrar las puertas de la Vª por el mal contagioso de la peste*".

Olaberrieta auzora ere aillegatu zan gaitza urte hartan: "*quando el mal contaxioso de Olaberrieta en hechar la muger de la casa y guardarla*". Pestia baserri edo kale-etxe batera heldutakuan, bertakuen erropak erre egitxen zitxuen. Ordaiñetan Udalak diru jakin bat ematen zixuen famelikuei.

1719. urtian ere peste-arriskua egon zan, "*los dias en que se ocuparon ha azer guardia de la precaucion del conttagio de la pestte*".

Edonundik etorri zeiken gaitza

Gaitza zauan herriren batetik etorri zeikezen barkuak, hori dala-eta agintarixek interes bereziz segitzen zeuen pestia edo izurria. Mutrikun Portuko Osasun Batzordia zauan, eta harremanetan egoten zan etengabe Gipuzkuako Osasun Batzorde Nagusixarekin (*Junta Superior de Sanidad de la Provincia de Guipuzcoa*), izan ere Estatutik (*Junta Suprema de Sanidad del Reyno*) aillegatzen ziran berrixak jakin eragitxen zixuen kostaldeko herrixei.

Adibide batzuk aitxatuko ditxugu: 1778xan Turkian zauan pestia ("*no den practico alguno a las embarcaciones procedentes*

de aquel ymperio, ni se espongan a comunicar con ellos y quedar contagiados"), 1785. urtian Tunezen, 1786xan Tripolin ("*el consul interino del Rey en Tripoli ha havisado que la peste se habia manifestado nuevamente en los arrabales de aquella ciudad*"), 1815. urtian Kanarietan ("*de haverse manifestado la peste del bubón en las siete Yslas*"), 1816. urtian Napoles aldian ("*en tierra de Bari una enfermedad de contagio muy violenta y parecida a la peste bubonica*"), 1817ko udan Afrika iparraldian ("*haberse declarado en casi toda la costa Setentrional de Africa la enfermedad conocida con el nombre de peste de Levante*")...

Cadizetik Mutrikura

1651ko marti inguruan barku batek erten zoan Donostiatik Cadizera, bertan bi maiñel mutrikuar zijuazen: Pedro Corostola eta Jossepe Yturrivalçaga. Cadizen hillebete batzuk pasautakuan honuzko bidia hartu zeuen. Handik egun batzuetara beste barku batek ere zoan Cadizetik, zazpi-zortzi maiñel mutrikuar zijuazen bertan. Bigarren barku hartako bi mariñel hil ziran pestiak jota: Juan Jausoro eta Domingo Azcarça. Gaitzak jota hil ziranez ez zixuen laga lihorrera eruaten, "*segun biene la nueva murieron en hanbos dos en un dia de enfermedad de contagio y los echaron en la barca de Cadiz a pique que no los consentieron a que sacasen los cuerpos en tierra para dar sepultura*".

Egun batzuetara alkartu egin ziran bi barkuak eta alkarrekin egin zeuen bidia. Coruñan geldialdixa egin zeuen barkuan zaramen jenerua (gatza) lihorreratzeko, baiña ez zixuen laga. Orduan, Corostola eta Yturribalçaga lihorretik Mutrikura juan ziran. Iraillaren 23an aillegatu ziran herrira, illuntzian; ixil-ixilik –*con arto secreto*– beuren etxietara juan ziran eta bertan egin zeuen lo. Bazakixen pestiak jotako herri batetik etorritxa ezin izango zirala gelditxu herrigunian, eta bixaramunian, herritxik erten eta bi ermitxetara juan ziran, bata San Juanera (Laranga) eta bestia San Blasera (Ibiri).

Herriko batzuek horren berri euki zeuenian agintarixengana jo zeuen. Manuel Arreguia alkatia buru zala, Udalak erabaki zoan Mutrikutik erten bihar zeuela eta ezingo zirala bueltatu harik eta hortarako agindua jaso arte. Hori jasotzen doan dokumentuak garbi azaltzen deu nun zauan arriskua: "*que estubieron en partes sospechosas donde se padezia la enfermedad del contagio*".

Pasaetik etorritxakuak

1823ko iraillaren 16xan kontu garrantzitsu baten inguruan hitz egitxeko batu ziran Manuel Antonio Urreiztieta alkatia, Francisco Ygnacio Urretavizcaya bikaixua, Julian Churruca lizentziatua eta Mamerto del Castillo medikua. Itxura danez mutrikuar batzuk Lezoko Santo Kristora juan ziran iraillaren 14ko ospakizunetara eta bertan zozela jakin zan Pasaen peste gaitza zauala. Mutrikura bueltatu ziranian, jakiña, agintarixak bildurrak aidian, herrixan gaitz haura ez ete zan zabalduko...

Auzi edo pleitua labur-labur azalduko degu. Iraillaren 12xan barku batek erten zoan Mutrikuko portutik Pasaekora. Bederatzi lagun zijuazen bertan: Tolaetxe baserriko Mª Bernarda Urreizti eta bere alaba, Saturraran baserriko Mª Antonia Lecue eta bi seme-alaba, Mª Clara Lecue, Arbelaitz-aundi baserriko Juana Paguaga, Antonio Francisco Echave-Sustaeta eta Ignacio Zavaleta.

Esan bezela, euren asmua zan Lezoko Santo Kristo eleizan mezia entzutzia, "*a cumplir la promesa que tenian hecha pª hir a visitar a dho Santo Christo*".

Iraillaren 13an Pasaera aillegatu ziran, goizeko zazpirak aldera. Echave-Sustaeta eta Zavaleta bertan geratu ziran, eta gaiñerako zazpirak Lezo herrira juan ziran. Orduan jakin zeuen pestia zauala Pasaen. Nahi txa Lezon ez zixuen laga barkutik ertetzen,



Lezoko Santo Kristo

azkenian ihes egin eta herrixan pasatu zeuen gaba. Mutrikun bezela Lezon ere egun haundixa da iraillaren 14a. Santo Kristoko eleizan mezia entzundakuan, Mutrikurako bidia hartu zeuen, oiñez. Orixo aldian heldu zakuen gaba eta Zarautzerako bidian errixua pasatu zeuenian guardia batek alto eman zixuen. Ermitxa txiki baten gaba pasatu eta bixaramunian, iraillaren 15ian, Zarauzko zirujaua etorri zakuen osasun-azterketia egitxera, "*les reconoció las lenguas y les pulseó*". Biña errial eskatu zixuen (14 errial), baiña, ez zakenez hainbeste, 7 errial hartuta konformatu bihar izan zoan. Gero, Zarauzko udaletxera eruan zitxuan alkatiaren aurrera. Alkatiak osasun-txartela eman eta gabaz Mutrikura aillegatu ziran.

Horrek jakinda, Mutrikuko Osasun Batzordiak erabaki zoan zazpi laguneko koadrillia berrogeialdixan eukitzia Santu baserrixan. Santu baserrixa Galbaixo ermitxa baiño beherago zauan, Maixatik hurre. Horretarako, Santu baserrixa hustu zeuen, "*que desocupando la caseria llamada Santu, por los havitantes en ella, que son solos un mozo y su hermana, sean conducidos, a la misma con guardia*".

Berrogeialdi harek irauten zoan bitxartian bi guardia edo zaindari jarri zixuen baserrixaren kanpoaldian eta, jakiña, ezin izango ziran iñorekin alkartu, gaitzak jota egon zeikezen-eta, "*que mantengan hasta otra providencia, sin comunicacion, ni roce en dha caseria de Santu, que se señala por Lazareto, cuidando de ello la guardia*".

Mutrikun neurri zorrotz haura hartu zeuen bitxartian, Pasae inguruan gaitza ez zabaltzeko osasun-kordoia jarri zeuen, "*Cordón Sanitario que se halla guardando con todo rigor por cuatro compañias del Egercito aliado y partidas de Gerdarmes que han venido desde Bayona*".

Josu Larrañaga Arrieta

EPAILE, ETA JAUJA ESKUBALOI TALDEKO JOKALARI

"Erabaki asko momentuan hartu behar ditugu, eta batzuetan ez da erraza izaten"



Jauja Eskubaloi Taldeko kadete mailako jokalariak ditugu Amaia Mendizabal (2004) eta Aiora Pagoaga (2004). Ilusioz hasi ziren eskubaloian, eta irmoki jarraitzen dute. Jokalari, taldekide eta entrenatzaile izateaz gain, erronka gogorra den epaile lanetan aritzen dira.

Noiz eta nola hasi zineten eskubaloian?

Hamabi urte genituela hasi ginen eskubaloian. DBHko lehenengo maila burutzen ari ginela eskubaloiari buruzko hitzaldi bat ematera etorri zitzaigun Ainhoa Mugerza. Bertan, kirol horren onurak azaldu zizkigun eta, garai batean Jauja Eskubaloi Taldeak izan zuen indarra azaldu eta talde haien ibilbidea azpimarratu zuen. Nahiz eta desagertzeraino heldu, geroztik poliki-poliki Jaujaren mugimendua berpizten hasi zen. Hasiera batean talde mistoak osatu bagenituen ere, pixkanaka mutilek utzi eta neskak gelditu ginen.

Zenbat talde zaudete gaur egun? Zein mailatan?

Momentuz hiru talde gaude. Gazteenek, **Jauja Sagarmiña** infantil taldea osatzen dute: 12-14 urte bitarteko hamalau jokalari ditugu. Aurtengo denboraldian hasi dira ligan parte hartzen, eta horien entrenatzailea Aitor Ulazia da. Bigarren taldea, **Jauja Astigarraga eraiketak** izenarekin ezagutzen dugu: 14-16 urte bitarteko hamahiru neskak osatzen dute, eta Ainhoa Mugerza da beraien entrenatzailea. Eta hirugarren taldea, geuk osatzen dugu: **Jauja Sagarmiña** Kadeteok. Aurten, lehendabizikoz, errendimendu mailan sartu gara: guztira hamahiru neska. Argi dago denok ere kopuruz oso justu gabiltzala, beraz, komenigarria litzateke datorren denboraldiari begira neska gehiago animatzea.

Nolakoa da kirol hau eta zer dauka berezia?

Oso gogorra da: etengabeko mugimendua eskatzen du, eta kontaktu fisikoa ezinbestekoa da. Horrez gain, taldeko kirol guztietan bezala, taldekideekin harreman ona izatea komenigarria da. Besteengan konfidantza izan behar dugu, taldean jokatuz egiten baitira partidu onak. Zoritxarrez, aditua ez denak gol kopurua edota gola sartu duen jokalaria soilik ikusten du. Baina, emaitzak lortzeko talde osoak egin behar du lan. Hau da, egoki pasatzea edo defendatzea gola sartzea bezain garrantzitsua da.

Eta, nola hasi zineten epaile lanetan?

Eskolarteko eskubaloi partiduak epaitzen hasi ginen, entrenatzaileak hala eskatuta. Ondoren, 10-12 urte bitarteko neska-mutilak entrenatzen hasi ginen. Poliki-poliki eskubaloiarekin harremana estutzen joan da. Zoritxarrez, partidu batzuetan jasotzen dugun tratua edo erantzuna ez da egokiena izaten. Arbitratzerakoan, erabaki asko momentuan hartu behar ditugu, eta ez da lan erraza. Badakigu pistatik edo gradetatik jokua ez dela berdin ikusten eta ondorioz, pertsona asko kexaka eta irainka hasten dira. Momentu horiek oso gogorrak

egiten zaizkigu, eta hurrengo batean berriro ere arbitratzeko animoak kolokan uzten dizkigute.

Beraz, ez da lan erreza…

Epaile lana oso zaila da. Kirol honetan mugimendu eta kontaktu fisiko asko dagoenez, jolasa oso azkarra da, eta ezinezkoa da guztia ikusi ahal izatea. Partidu hasieran urduri egoten gara, ondoren, nahiz eta lasaitzen joan. Ordea, beti izaten dugu zerbait gaizki egiteko kezka. Horrez gain, ahalik eta zuzenenak eta objektiboenak izaten ahalegintzen gara. Kontutan izan epaile izateko ez dugula formakuntzarik edo ikasketarik jaso.

Orokorrean errespetuzko jarrerak ikusten dituzue kirol honetan?

Zorionez, partidu gehienetan errespetuzko jarrerak ikusten ditugu. Jokalariok zein entrenatzaileok oso ondo ezagutzen dugu araudia, eta badakigu mugak zeintzuk diren. Inoiz ez dugu istilu larririk izan jokalarien artean, eta ia beti partidua bukatutakoan bostekoa ematen diogu elkarri. Hala eta guztiz, kanpoko taldeko entrenatzaile edo guraso baten edo besteren kexak izan ditugu; baina ez da ohikoa.

Zer aipatuko zenukete? Zerbait esateko?

Sarritan, taldeak modu egokian aurrera egiteko pertsona askoren laguntza behar izaten du. Babesleen, entrenatzaileen eta gurasoen laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke aurrera egitea, eta egiten duten lana ez diegu nahikoa eskertzen. Horrez gain, askotan entrenatzeko zailtasunak ere izaten ditugu. Alde batetik, batzuetan kiroldegiko pista erdia bakarrik izaten dugu, eta bestaldetik, ordutegia ez da egokiena izaten; oso berandu bukatzen dugu eta ondorioz, lasai dutxatzeko denborarik ere ez dugu izaten, kiroldegia itxi egiten dutelako.



Bukatzeko, aipatu nahi dugu talde edota familia zoragarri bat osatzen dugula. Nahiz eta baliabide onenak ez izan, taldeak aurrera egin du eta egingo du.





ZIRIAKO ANDONEGI
MIKROIPUIN LEHIAKETA

Lehiaketa honetan parte hartzeko honako baldintzak bete beharko dira:

1. Edonork parte hartu ahal izango du lehiaketan, eta parte-hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal izango ditu.

2. Lanak euskaraz idatziak, originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dira.

3. Gaia librea izango da eta, gehienez, 100 hitz idatziko dira.

4. Hiru sari banatuko dira:

Lan onena, 18 urte gorakoentzat: 500 euro.

Mutrikuarren arteko lan onena: 200 euro

Gazteen arteko lan onena, 18 urtetik behera: 200 euro

5. Egile bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du.

6. Lanak apirilaren 1erako aurkeztu beharko dira bi modu hauetako bat erabiliz:

Posta arruntez: Mutrikuko Udala-Kultura batzordea
Txurruka plaza z/g, Mutriku 20830

Idazlanak izenburua eta egilearen ezizena izango ditu agerian, eta ezin izango da egilearen izenik aipatu. Idazlanarekin batera, gutun-azal itxi baten barruan, idazlanaren izenburua eta ezizenarekin batera, egilearen datu pertsonala agertuko dira: izen-abizenak, adina, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura eta nortasun agiriaren kopia.

Posta elektronikoz: kultura@mutriku.net

Bidaltzen den mezuari bi fitxategi erantsiko zaizkio: batean, idazlana goitizenez sinatua; bestean, egilearen datu guztiak, nortasun agiria barne.

7. Epaimahaia Mutrikuko Kultura Batzordeak izendatuko du eta hartzen duen erabakia aldaezina izango da.

8. Aurkeztutako lanek maila egokirik ez balute, sariak eman gabe gera litezke.

9.. Mutrikuko Udalak beretzat gordetzen du saritutako lanak argitaratzeko eskubidea, egileen izenak aipatuta beti ere.

10. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauetan jasotako guztia onartzea dakar.



• 100 hitz gehienez •

• euskaraz •

• gai librean •


• apirilaren 1erako •

• info+: www.mutriku.eus •

Antolatzailea: Mutrikuko Udala - Kultura eta Euskara Batzordea

Ni, zu, gu

Institutuko DBH1eko ikasleek bakoitzaren identitatea, bestearen errekonozimiendua eta taldearen garrantzia landu duen proiektua gauzatu dute aurten ere, eta Zabiel Kultur Etxean aurkeztu otsailaren 5ean eta 6an.




Nor naiz ni? Badakigu nor garen, baina sarritan ez dakigu azaltzen. Badugu norberaren, ondokoaren, taldearen sentimendua eta ezagutza, baina... jarri al gara sekula hortaz pentsa-tzen? Nor naizen ni, nor den ondoan daukaguna, nor garen gu...

Galdera horiei guztiei erantzun bat eman nahian, **"Ni zu, gu"** proiektua gauzatu dute DBH1eko ikasleek urtarrilean zehar. Guggenheim Museoak antolatzen duen "Artea ikasbide" proiektuan kokatzen den Naia del Castillo artistaren ideia originaletik abiatuta, ikasleek, taldeka, bere burua, ondokoa eta taldea azter-tzera eraman dituen proiektua landu dute. Bakoitzaren nortasun eta ezaugarri propioen balioa, ondokoaren errekonozimendua eta onarpena eta taldearen indarraz jabetzera eramango duen proiektua nahi izan du honek, hizkuntza plastikoa erabiliz eta lan artistikoak sortuz.

Norberaren buruari begira jartzeko jarduera izan da lehena. Horretarako, bakoitzaren izenaren garrantzia lantzeaz gain, bakoitzaren ezaugarri propio bat aukeratu dute ikasleek: azalaren kolorea. Esku bakoitzaren ezaugarri batzuetan ohartu (kolorea, tamaina, forma, luzera) eta hain desberdinak ez garela konturatu gaitezke, eta, hala bada (edo ez), talde bat izateko hainbat ezaugarriren batuketa izan gaitezke. Ezberdintasuna modu aberatsean bizitzeko aukera izateko gonbidapena egin dugu.

"Oso ondo pasatu dugu. Beste ikuspuntu batzuetatik ikusita asko ikasi dugu, eta nahiz eta guztion iritzia arlo guztietan bera ez izan, oso artelan politak sortu ditugu. Elkarlanean lan eginez gustura sentitu gara"



Ondoren, aurrean dagoenari begira jartzeko jarduera egin dute. Bestearen identitatea eta ezberdintasunaren errekonozimenduan hastapenak egiteko helburuarekin, parez pare eseri eta parekoaren erretratua marraztu ondoren, besteengandik zerk bereizten duen konturatzen saiatu dira ikasleak. Bukatzean, aurpegi bakoitzeko atalak moztu eta nahastu ondoren, pieza ezberdinez osatutako erretratu berriak sortu dira.

Azkenik, ikuspegi anitzak errealitateari begira jartzeko jarduera landu da. Errealitatea begiratu eta ezagu-tzeko orduan, taldearen konplexutasuna, aniztasuna eta osotasunaren balioa azpimarratu nahi izan dira. Mundua ikuspegi bakar batetik begiratzeak dakartzan mugen inguruan hausnarketa egiteko aukera izan dute, eta ondoren, ikuspegi horiek gorpuztu dituzte artistikoki. Horrela, altuera eta forma ezberdinak irudikatuz eta ekoizpen plastiko bat sortuz, errealitatea begiratzeko hainbat ikuspegi daudela konturatzen saiatu gara. Forma geometriko hauek lehen lortutako azalaren kolorea duen pinturarekin pintatu dituzte.

Azkenik, gure proiektua laburtzen duen lana aurkeztu da, bideoa: **Ni** garrantzitsua naiz, **zu** gonbidatzen zaitut, **guk** taldea osatzen dugu.





SENDA
Zorionak maitxia! Eder ederra zea ta, barrutik eta kanpotik! matxe-matxe... ilargiraino eta buelta!



IXUA
Otsailaren 9an 5 urte bete duzunez, zorionak eta muxu bat Oier, Iune, Alberto eta Izarren partez. Txokolatadia prestatu!



IXUA
Bost urte bete duzulako, Zorionak gure etxeko printzesari! Muxu potolo bat Aitak, Amak eta Miak.



MARKEL
ZorionakBi urte beteko ditxu martxuaren 3an gure etxeko artistiak! Zorionak!!



ENAITZ
Zorionakkkk Enaitz!! Dauaneko 9 urte! Oso ondo pasatu ta disfrutau egunaz!



ALAIA
Bost muxu eta belarritik teinkada bat martxoaren 16an



AITANA
Zorionak! Otsailaren 19an 4 urte handi egin ditu gure etxeko printzesak, muxu potoloak etxekoen partetik!



ITZIAR
Zorionak gure amona ederrari! Otsailaren 12ko partez mila muxu hain ondo zaintzen gaituen amamari!



ITZIAR eta ARANTXA
Zorionak amona bixai zuen urtebetetziak pasatu dialako! Matxo haundi bana familixa guztian partez.



LAGUNA
Zorionak!



LAGUNA
Zorionak!

ZORIONTZEKO BIDEAK
kalaputxi2001@gmail.com
whatsapp 635748393

Argazki Zaharrak



Mendi buelta 1960ko hamarkadan

Tente: Maria Victoria Mendaña, Maribel Azkue, Begoña Ituarte, Lolita Andonegi eta Mari Loli Urkiza.

Eserita: Antonio Tamayo, Juan Miguez, Jabier Flores, Jesus Mari Lezertua "Moxka" eta Iñaki Lizardi "Kaialde".

Argazki zaharrak erakutsi nahi?

>> kalaputxi2001@gmail.com

>> wathsapp: 635748393

>> Ansorregi zapata denda

Joseba Iñaki Eleizgarai

masajista eta osteopatia

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ANSORREGI oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

OTSAILA		MARTXOA	
21tik 23ra	Lasuen Elezgarai	1	Amaia Zalduegi
24tik 27ra	Hiart Burgoa	2tik 5era	Lon Apraiz
28 eta 29	Amaia Zalduegi	6tik 8ra	Lasuen Elezgarai
zapatu (29) goizean, Lon Apraiz		9tik 12ra	Amaia Zalduegi
		13tik 15era	Hiart Burgoa
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		zapatu (14) goizean, Lasuen Elezgarai	
Elgoibar		16tik 19ra	Lasuen Elezgarai
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		20tik 22ra	Lon Apraiz
Celia Barandela 943 20 69 84		23tik 26ra	Hiart Burgoa
Ziriako Agirre kalea 4, Eibar		27tik 29ra	Amaia Zalduegi

MENDI IRTEERAK

martxoak 8
Sagardotegia

apirilak 5
Ibarra - ORISOL (1.132 m.)- Ibarra

maiatzak 10
Otzaurte - ARATZ (1.445 m.) - Otzaurte

ekainak 14
Gorostapolo - HAUZA (1.304 m.) - Izpegiko lepoa

uztailak 3, 4 eta 5
PIRINEOAK - Tendeñera mendilerroa

irailak 13
Jarla eta Carla

urriak 18
BIANDITZ (844 m.) - Artikutza inguruak

azaroak 15
Lagran - SAN TIRSO (1.333 m.)

abenduak 13
Deba inguruak

Burumendi Mendi Elkartea

AGENDA

INAUTERIAK

otsailak 21, barixakua
Pikomelatosen kalejira Banda txikiarekin
Beheko plazan jolasak

otsailak 22, zapatua
Mozorro lehiaketa, 17:30etan Miruaitz frontoian

MUTRIKUKO EMAKUMEZKOEN BINAKAKO I. PALA TXAPELKETA

otsailak 23, domeka
Final laurdenak, Miruaitz frontoian

martxoak 8, domeka
3. eta 4. postuak eta Finala, Miruaitz frontoian

MARTXOAK 8
emakumearen nazioarteko eguna

ODOLA EMATEA

otsailak 21

apirilak 17 · ekainak 12 · abuztuak 21 · urriak 23 · abenduak 11

Anbulatorioan, 18:00etan
Gipuzkoako Odol Emaileak

Zure Elkartearen ekitaldiren bat edota deialdiren bat ***Kalaputxi***n erakutsi nahi baduzu,

idatzi hauetako batera:

kalaputxi2001@gmail.com

whatsappa 635748393

martxoko aldizkarian argitaratzeko

martxoaren 6rako

bidali zuen lanak





EROSKI city

Gure bezeroengandik beti hurre









okindegia · fruitategia · harategia · urdaitegia · eta beste

asteazkenetan eta ostiraletan erosketak etxera eramateko aukera


San Agustin 10 · Mutriku · Tel. 943 60 36 11



Jon naberan

DISEINU eta BERRIKUNTZAK, s.l.

Telf. 685 731 969



IM
ARKITEKTURA

www.imarkitektura.com

EGURREZKO EGITURAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
BASERRIAK
ERABERRITZEAK

ITE

JUAN GISASOLA 10 (EIBAR)
TLF 618 854 121
TLF 623 183 075